

Eunate BHI, ikastetxe berritzailea, Finlandiarekin harreman estua

Txantreako D ereduko Eunate Bigarren Hezkuntzako Institutua eleaniztasunaren eta nazioartekotasunaren adibidea da. Momentu honetan Nafarroan bi Erasmus+ proiektu indarrean duen ikastetxe bakarra da: KA1 delakoa, irakasleen formakuntzarako ikastaroen bidez atzerrian eta *job shadowing* deitutako praktika onen behaketaren bidez, eta KA2 delakoa. Azken hau Finlandiako Joensuun Lukio ikastetxearekin adiskidetzan hiritartasuna eta elkartasuna gazteengan bultzatzeko asmoz. Kontuan hartu behar da, Erasmus+ dirulaguntza lortu ahal izateko lehia gogorra pasatu behar izan duela ikastetxeak, bakarrik puntu asko lortutako proposamenek eskuratzen dute eta.

Eunate BHIk eta bere finlandiar bazkideak bat egiten dute Erasmus+ KA2ko proiektuan: *Hiritartasun orokor eta eraginkor baten alde -gaztediaren gizarte bazterketaren aurka*. Honen helbururik nagusiena gazteak hiritar eraginkorrak izatearen kontzientzia piztea da europar eta mundu osoko errefuxiatuen eta etorkinen erronka dela eta.

Proiektuaren barruan, bi trukaketa egin dira aurten, abenduan 15 ikasle finlandiar Eunatera etorri ziren eta otsailean Batxilergo 1.mailako 15 ikasle Finlandiara abiatu ziren elkar lanean aritzeko, proiektuaren jarduerak egiteko eta ikasitako guztia elkar trukatzeko. Honetaz gain, norberaren kultura, hezkuntza sistema eta bizimodua ezagutzeko aukera ahaztezina izan dute.

Eleaniztasuna eta nazioartekotasuna

Eunate BHI ez da ikastetxe zaharra, 1997 sortua izan zen. Hala ere, 2000. urtean bere lehen trukaketa izan zuen, Erresuma Batuko Hampton Schoolekin. Hortik aurrera trukaketa asko egin ditu, herrialde askorekin adiskidetzan, Erresuma Batua, Eslovenia, Polonia, Italia, Hungaria, Belgika, Finlandia eta Frantzia. Urte hauetan bi Comenius proiektuetan parte hartu du: "Super supper, you are what you eat" eta "Wine not?" Aipagarria da Eunate ikastetxearen parte hartzea *European Week* delakoan, Belgikako Geel hirian Sint-Dimpnacollagek antolatzen duen Europako herrialde ezberdinetako gazteen elkarretaratzean. Eta, urtero, Frantziako Collège Anjou-Bretagnerekin trukaketa ere burutzen dute.

D ereduko Eunate ikastetxeak elebitasunetik eleaniztasunaren aldeko apustua egin du. Ingeles, frantsesa eta alemanera bertan ikasten ahal diren atzerriko hizkuntzak dira. Gainera, 2007-08 ikasturtetik aurrera Ingeles Atal Elebiduna martxan jarri zuen eta, ikasturte bat beranduago, Frantses Atal Elebiduna ireki zen institutuan. Beraz, nahiz eta euskara ikasteko hizkuntza nagusia izan, zenbait ikasgai ingelesez eta frantsesez ikasteko aukera eskaintzen du.